

IX. LEGEGINTZALDIA
2015-2019 LEGEALDIA
UXUE BARKOS BERRUEZOren
INBESTIDURA-HITZALDIA
(GEROA BAI)

AZPIEGITURAK

Azpiegituren alorrean, etorkizuneko Gobernuak azterketa indibidualizatuak egingo ditu, eta arreta berezia emango die polemikoenak direnei. Hauek dira adibiderik aipagarrienak:

- Pirinioetako autobidea (bidesariaren gainkostua ebaluatzea itzalean, eta espediente guztia aztertzea Estatuari ordainak eskatzeko, hala badagokio).
- Nafarroako kanalaren zabalkundearen lehen faseko zona ureztagarriaren ezkutuko bidesaria, eta onartutako gainkostu finantzarioa murrizteko formulak aztertzea.
- Gendulaingo Udalez Gaindiko Azpiegituren Sektore Plana, helburu honetarako: ordezkatzeko duen modeloaren kontrako jarrera politiko batetik abiatuta, orain arte egindako kudeaketak eduki ditzakeen aurrekontu-inplikazioak eta arrisku juridikoak balioztatzea.
- Navarra Arena (aukerak bilatzea foruko diru-kutxek gutxiago ordain dezaten zuzkidura horretarako).
- Gauza bera gertatzen da Arkuen Zirkuituaren kasuan (egungo kudeaketa hurbiletik jarraituta)
- Sendaviva (indarreko negozio-plana berrikustea eta neurriak hartzeko induzitutako inpaktu ekonomikoa eguneratzea)
- Bardeetako tiro eremua (Estuari desegitea exijitzea)
- 121-A errepidea Europako Zuzendaritzara egokitzea (Belate) eta eskakizunak aztertzea.
- Yesa handiagotzea, eta handiagotze horren etetea Estatuan defendatzea.
- Udalez Gaindiko Azpiegituren Sektore Plana. Aintzat hartuta irudi horri emandako erabilera, proposatu dute etorkizunean berrikus dadila Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Arauaren 42. artikulua,

zehaztasun handiagoarekin mugatzeko eta gehiegikeria ez oso errespetutsuak ekiditeko datxekien erakundeetako udal-autonomiarekin.

Trenbidearen alorrean eta aldirikoei dagokienez, Gobernu honek Renferekin hitz egiteko konpromisoa hartu du, Iruñako geltokiaren eta herrien arteko ordutegiak eta maiztasunak hobetzeko aukerak balora ditzaten bidezko azterketak egin eta gero.

Ibilbide luzeko trenbideari dagokionez, eta epe luzera Nafarroa pertsonentzako eta salgaientzako trenbide-irtenbide batekin Atlantikoko eta Mediterraneoko korridoretik kanpo ez geratzeko apustua egiten bada ere, Gobernu honek erabaki du une honetan urrats administratiborik ez ematea Estatuarekin hitzartutako Campanas-Castejón tarteari dagokionez, eta egoera zorrotasun osoz aztertzea.